



DESBERDINTASUNAK

baztertuz

GARAPENA

lortu

 Lan Koadernoak
D.B.H.
1-2



1. Jarduera **Desberdintasunen bila**

Bizikleta Tailerra



Gemak eta Mariak 14 eta 15 urte dituzte hurrenez hurren. Urte batzuk lehenago Pacok, esku-lanetako irakaslea bera, mekanika tailer bat antolatu zuen. Bertan bizikletak konpontzen ikasi zuten. Ondoren Gemak eta Mariak beren lagun Javirekin batera eskolan zegoen bizikleta tailerraren ardura hartu zuten. Eskolako neska-mutilen bizikleta nahiz triziklo ugari konpondu dute eta baita gurasoek ekartzen dituzten haur-kotxeak ere. Gemak eta Mariak aurten kanpin denda bat erosi eta auzoko lagun-talde batekin oporretara joateko diru pixka bat irabazteko erabakia hartu dute. Horretarako beren auzoan bizikleta tailerra jartzea erabaki dute. Lokal bila ari zirela Mariaren auzo elkarteak tramankuluz betea zuen gelaz gogoratu ziren.

Maria joan zen auzo elkarteko lehendakariarekin hitz egitera.

- Jakin nahiko nuke beheko gela libre ote dagoen, bizikletak konpondu ahal izateko.
- Bai, Maria, baina esan zure nebari nirekin hitz egitera etortzeko.

Mariak, orduan, gela beretzat eta bere lagunarentzat zela azaldu zion. Lehendakariak zera esan zion:

- Hori tontakeriak dira, non ikusi dira emakumeak bizikletak konpontzen? Tira, Maria, zoaz etxera panpinekin jolastera.

Pentsatzen o

1. Zein da auzo elkarteko lehendakariak neskei buruz duen iritzia? Ze ondorio izan du pentsamolde horrek Gema eta Mariarentzat?
2. Mariaren lekuan bazina, nola sentituko zinateke? Zergatik?
3. Ezagutzen al duzu emakumeek zenbait lan egiteko aukerarik ez duten antzeko kasurik? Zein?
4. Lan batzuk gizonezkoentzat soilik eta beste batzuk emakumezkoentzat soilik direla uste duzu? Zergatik?





Inkesta




Hurbil zaitez etxetik kanpo lan egiten duten bi emakumerengana, egiezu honako inkesta hau eta idatzi beraien erantzunak

1	2
Zein da zure lana?	Zein da zure lana?
Gustora zaude egiten duzun lanarekin edo beste bat nahiago zenuke?	Gustora zaude egiten duzun lanarekin edo beste bat nahiago zenuke?
Gustatzen zaizun lana aukeratu ahal izango bazenu, zein aukeratuko zenuke?	Gustatzen zaizun lana aukeratu ahal izango bazenu, zein aukeratuko zenuke?
Emakumeak etxetik kanpo lan egitearen onurak eta eragozpenak	Emakumeak etxetik kanpo lan egitearen onurak eta eragozpenak


INKESTA BATEN DATUAK

Seme-alabak izateak oztopoak ekartzen al ditu lanbiderako?

Gizonak




Emakumeak



2. Jarduera: **Zergatiak bereizten**

MAQUILETAKO BIZITZA



Produktuak ekoizterakoan (jantziak, altzariak,...) egin behar den esku-lana egiteko hegoaldeko herrialdeetan sortzen diren enpresak dira maquilak. Multinazionalen inbestimenduak erakartzeko hegoaldeko herrialdeetako gobernuek sortutako industrialdeetan kokatu ohi dira maquilak. Gobernuek erraztasunak eskaintzen dizkiete atzerriko enpresa hauei bertako jendeari lanpostuak emateko.

Maquiletako enpresa-gizonek lortzen dituzten laguntzak honako hauek dira: ez dute zergarik ordaintzen, azpiegiturak eta tokiko zerbitzuak eskaintzen zaizkie (telefonoa, ura, argia,...), erraztasun handiz atera dezakete dirua herrialdetik.

Maquilek ez diete langileei ezagutarik eta teknologiarik eskuratzen, bertan egiten den lana esku-lana delako. Herrialde batean oso denbora gutxian irauten duten enpresak dira eta horregatik deitzen zaie "enara" enpresak.

Maquiletan lan egiten duten gehienak 17 eta 25 urte bitarteko emakumeak dira, alfabetatu gabeak (erdiak baino gehiagok lehen hezkuntza burutu du eta heren batek bigarren hezkuntza hasi). Oso gazterik hasten dira lanean, batzuk 15 urte bete aurretik. Gehienentzat etxetik kanpora egiten duten lana da maquiletakoa. Lanean ari diren emakumeen %75 ezkongabea da eta heren batek soilik ditu seme-alabak.









Emakumeek dituzten lan-baldintzek produktibitate handia eta gatazkarik eza bermatzen dizkiete Maquila industriei. Langileen eskubideak ezarriko eta defendatuko dituen legegistemarik ez dagoenez, lan-baldintzak esplotazio hutsa dira. Maquiletako emakume hauetako gehienek etxeko lanak egin behar izaten dituzte beren etxeetara itzultzean: janaria prestatu, arropa garbitu, haurrak zaindu, erosketak egin,...

ONURAK	ERAGOZPENAK



Lan-Eskubideak

Idatzi mundu osoan errespetatu beharko liratekeen 6 lan-eskubide






3. Jarduera: **Premia bati erantzunez**

Hizki zenbakiaren arabera, idatzi dagokion lekuan,
Honduraseko 7 departamenturen izena

YORO - COLON - VALLE - CORTÉS - OLANCHO - INTIBUCA - ATLANTIDA



Hurbil zaitez zure parrokiako CARITAS taldera eta informazioa jaso: zeintzuk dira, zer egiten dute, zergatik, nondik lortzen dute dirua proiektuak aurrera eramateko,...





Otoitza egiteko



Aurkitu nahi zaitugu

Jauna, gure munduan
premia eta bidegabekeria ugari dago
eta galdera egiten digute,
eta gure erosotasunetik esnatu egiten gaituzte.
Guztiok senideak garela esan duzu zuk,
txiroen ondoan negar egin duzu zuk,
gose direnez errukitu zara zu;
egizu haien bitartez gu zutaz jabetzea,
guk zu, ikustea eta aurkitzea.
Gose den haurraren aurkitu egin nahi zaitugu;
Txiro zarpailaren ikusi egin nahi zaitugu;
txabola eta miserian zutaz jabetu nahi dugu.
Sufritzen duen emakumeengan aurkitu egin nahi zaitugu;
egoera mingarrietan ikusi egin nahi zaitugu;
aintzat hartzen ez diren haurren zutaz jabetu nahi dugu.

Jesus, ez duzu eskurik

Jesus, ez duzu eskurik.
Gure eskuak besterik ez dituzu
bidezkoa den mundua eraikitzeko.
Jesus, ez duzu oinik.
Gure oinak besterik ez dituzu
askatasuna eta maitasuna abian jartzeko.
Jesus, ez duzu ezpainik.
Gure ezpainak besterik ez dituzu
txiroen berri onaren berri munduan emateko.
Jesus, ez duzu bitartekorik.
Gure ekintza besterik ez duzu
gizaki guztiak senide izan gaitezela lortzeko.
Jesus, gu gara zure Ebanjelioa,
jendeak irakur dezakeen Ebanjelio bakarra,
gure bizitzak ekintza badira eta hitzak eraginkorrak.
Jesus, eman iezaguzu gure dohainak garatzeko
eta gauza guztiak ongi egiteko zure muskulatura morala.

Zabaldu, anaia

Zure atera deitu dut
zure bihotzera deitu du
ohe on baten bila
su on baten bila
Zergatik baztertzen nauzu?
Zabaldu, anaia.
Zergatik galdetzen didazu
Afrikakoa naizen,
Ameriketakoa naizen,
Asiakoa naizen,
Europakoa naizen?
Zabaldu, anaia.
Zergatik galdetzen didazu zein den
nire sudurraren luzera,
nire ahoaren tamaina
nire azalaren kolorea
gizonezkoa ala emakumezkoa naizen,
eta nire jainkoen izena zein den?
Zabaldu, anaia.
Zabaldu zure atea,
zabaldu zure bihotza
gizakia naizelako,
denbora guztietako gizakia,
zeru guztietako gizakia,
zure antza duen gizakia.





PROCLADE
San Francisco, 12A-3º
48003 - BILBAO
94 416 69 31
mision-bi@terra.es

Laguntzen du:

bbk